

astekaria

Arturo eta Klementina



Xabier Etxaniz Erle

2013-10-27



Adela Turin: Arturo eta klementina

Pamiela, 2013

1976an plazaratu ziren lehen aldiz *Arturo e Clementina*, Milanen. Adela Turin idazle eta ikerlari feministak sortu eta Nella Bosniak ilustraturiko protagonista ezagunenak edo ezagunenetarikoak dira. Orain, ia 40 urte geroago, euskaraz ari zaizkigu bi dortoka ezagun horiek (baita *Arrosa eta leuna* laneko elefanteak ere), eta denborak aurrera egin badu ere, liburu horiek zoritxarrez ez dute gaurkotasunik galdu. Izan ere, Adela Turin eta Nella Bosniak “Neskatilen alde” izeneko bilduman plazaratu zituzten obra horiek eta beste batzuk ere. Gizarte matxistari kritika

eginez, haurrentzako istorio aurrerakoiak eta iraultzaileak kritika feministaren ildotik sortuak; gizarte matxistaren aurrean, haurrentzako literatura matxistaren aurrean, alternatiba gisa aurkeztuak.

Arturo eta Klementina liburuan, esaterako, dortoka bikote baten istorioa kontatzen zaigu. Ezkondu ondoren zoriontsu bizi diren dortokak, Arturo etxetik kanpo lanean, Klementina etxean, etxeko lanak egiten eta senarraren zain. Arazoak baina, Klementinak beste gauza batzuk egin nahi dituenean sortzen dira. Pintatu nahi duela, bidaiatu, musika jo... eta orduan Arturok behin eta berriro erakutsiko dio ez duela balio, ez dela gai gauza horiek egiteko, hobe duela etxean musika entzun, koadroak ikusi... Eta horrela, Klementinaren bizitza gero eta pisutsuagoa da, gero eta jasanezinagoa.

Modu sinplean, erraz uler daitekeen eta aldi berean animalien pertsonifikazioaren bidez distantzia ere gordetzen duen adibide hau dela eta, hurrek berehala bereganatuko dute liburuan ageri den mezua; gogoeta gizon eta emakumeen arteko rol banaketaz, emakumeen askatasunaz eta norberaren garapen beharraz... eta hori dena, dortoka biren istorio, antza, sinple eta labur honetan.

Liburuon helburu didaktikoa nabarmena da, alde horretatik; baina, era berean, istorioa kontatzeko era, narrazioaren erritmoa edota protagonisten karakterizazioa lortuak eta landuak dira. Bere ekintzen bidez joango gara Arturo ezagutzen, bere jarrera dela eta, Klementina. Eta, horrela, hasiera batean bikote zoriontsua, ameslaria, itxaropentsua zena, hautsitako bikote bilakatuko da orriak pasa ahala. Irakurlearen baitan aldaketa eta gertakarien inguruko gogoeta zabaltzen den neurri eta erritmo berean.

Ia 40 urte pasa dira Arturo eta Klementina plazaratu zirenetik, baina oraindik ere haien beharrean ginen. Poztekoa da, alde horretatik, haur literatura modernoan klasikoa zen obra hau euskaraz ere irakurtzeko parada izatea, eta eskertzekoa Fernando Reyk eginiko itzulpena. Iritsiko al gara ipuin soil moduan irakurtzera!